

JESUSEN DEIA BIZIAN GORA

Bizian Goran nabil
hau da suertea!
gainera merkea...
Honen ardura barik
dabil gaur jentea...
Zu ez zara aspertzen
oi Jesus maitea,
gaur be joten deuskuzu
Zuk gure atea;
zer poza Zuretzat guk
baietz esatea!

Guri jazo jakuna
dirudi amesa,
kontu aldrebasa:
Atxaki asko baina
erantzun ezetza.
Jesus ez da aspertzen
badau interesa,
guk emon deiogun
bihotzez baietza:
Jesus, baiezkoa da
gaur gure promesa.

Kurutzean bizia
emonaz gainera
gaur hau da aukera:
Zeugaz gura gaituzu
guztiok batera.
Sarri egin dot, Jesus,
bidean atzera,
gaur damututa gatoz
Zuri esatera:
Jarraituko deutsugu
jo ta ke aurrera
A. Martzel